

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

2020/2021 ikasturtean euskara ikasteko beka deialdia

Udal honek, 2021eko azaroaren 3ko bilkuran, 2020/2021 ikasturtean euskara ikasteko beka deialdiaren oinarriak onetsi zituen.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdi hori argitaratu egiten da:

2020/2021 IKASTURTEAN EUSKARA IKASTEKO BEKA DEIALDIAREN OINARRIAK

1. Helburua eta araubidea: 2020ko urrian hasi eta 2021eko irailean amaituko den ikasturtean euskara ikasketak egiten laguntzeko beka ematea, bai eta udako ikastaroak eta barnetegiak egiteko ere (joan-etorrietarako gastuak ez dira sartzen, ez eta mantenua eta ostatua ere barnetegiara joanez gero).

Eskaera eta jaso beharreko zenbatekoen kopurua dela eta, dirulaguntzetan eman beharrekoa deialdiaren aurrekontu zuzkidura baino gehiago balitz eta, ondorioz, laguntzak murriztu egin beharko balira, murrizketa hori heinean egingo litzateke onuradun guztien artean.

2. Onuradunak: Euskara ikasteko beka eska dezakete hamasei urtetik gorako pertsonak, baldin eta ikastaroa hasi baino lehen eta ikastaroan zehar etenik gabe Arraia-Maeztun erroldatuta badaude. Egindako ikastaro edo barnetegi adina beka eska daitezke. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten (euskaltegi publikoak, pribatu homologatuak edo administrazio publikoa) matrikulatuta egon beharko da.

Dirulaguntzen xedetik kanpo geratuko dira graduondoko ikastaroak, doktoregoak, masterrak eta karrerako ikastaroak. Era berean, ez dira diruz lagunduko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak araututako ikastaroak (Hizkuntza Eskola Ofizialak, adibidez), ezta IRALE bezalako beste ezein erakundek antolatutakoak edo IVAPek parte hartzen duen ikastaroak ere.

3. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia: Eskaerak Arraia-Maeztuko udaletxean aurkeztu beharko dira. Era berean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakoaren arabera ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

4. Beken zenbatekoa: Bekaren zenbatekoa matrikula kostuaren edo ikasketa gastuen ehuneko 80 izan ahalko da, gehienez. Edonola ere, beka ezin izango da izan 500 euro baino gehiago eskatzaileko eta urteko.

Emango den laguntzaren zenbatekoa hirutara banatzen da, ikastaroaren orduen arabera:

1. 400 ordu arteko moduluak	% 60
2. 401-600 orduko moduluak	% 70
3. 601 ordu baino gehiagoko moduluak	% 80

5. Aurrekontu aplikazioa: 335 480000: Sustatzea euskara ikastea. Zenbatekoa: 1.000,00 euro.

Zuzkidura hori ez bada nahikoa ordaindu beharreko guztia ordaintzeko, hainbanaketa egingo da.

6. Betekizunak: Beka eskuratzeko, gutxienez, eskolen ehuneko 80ra joan dela egiaztatu beharko da edo, hala behar denean, matrikulatuta dagoen ikastaroa (edo ikastaroak) gainditu izana.

Arraia-Maeztuko Udalak egun antolatu eta kudeatzen dituen euskara ikastaroak badaude lehendik ere diruz lagunduta; beraz, haietan parte hartzen duten ikasleek ezingo dute dirulaguntza eskaerarik aurkeztu deialdi honen harira.

7. Laguntzen bateragarritasuna: Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek lortzen dituzten beste guztiekin. Hala ere, onuradunak ezingo du guztira ikastaroaren matrikularen kostua baino gehiago jaso.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

HABEren urratsen bat gainditzen duten ikasleak HABEk urtero egiten duen dirulaguntza deialdira aurkeztuko dira. Arraia-Maeztuko Udalak ematen duen dirulaguntza HABEk ematen duenaren osagarri izango da.

8. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak: Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek:

– Inprimaki ofiziala; udal bulegoetan emango da, eta hartan helburu berarekin beste laguntzarik eskatu edo eskatuko den adierazi behar da.

– NANaren fotokopia.

– Dirulaguntza jaso aurretik, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzea.

– Ordainketak egunean izatea Arraia-Maeztuko Udalean.

– Matrikularen egiaztagiria, euskaltegiak edo ikastegiak emana. Barnetegien kasuan, xehakatu egingo dira irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak.

– Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banketxeak emana.

– Eskolen ehuneko 80ra joan izanaren egiaztagiria, euskaltegiak emana, edo matrikulatuta egon den ikastaroa (edo ikastaroak) gainditu izana egiaztatzen duen agiria.

– Helburu bererako beste laguntzaren bat jaso bada, hura egiaztatzen duen agiria.

– Ez zaio dirulaguntzarik emango Arraia-Maeztuko udalerrian ikasteko aukera izan eta udalerritik kanpo ikasten duen ikasleari; salbuespenez, hartarako diren arrazoiak idatziz aurkeztu ahal izango dira eta haiek aztertuko.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan ezarritako betekizunak onartzen direla.

9. Eskaerak aurkezteko epea: laguntza eskaerak eta agiriak 2021eko azaroaren 18tik abenduaren 23ra aurkeztu beharko dira, udal bulegoetan.

10. Deialdia, izapideak eta ebazpena: Udalbatza da deialdia eta oinarriak onesteko organo eskuduna.

Euskara teknikariak egindako txostena aurkeztu ondoren, alkatetzaren dekretu bidez ebatziko dira eskaerak.

Ebazteko epea igaro eta eskabideari buruzko berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ukatu egin dela esan nahiko du, nahiz eta geroago berariaz ebatzi ahal izango den.

11. Itzulketa: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36.etik 37.erako artikuluetan ezarritakoetan itzuli beharko da laguntza.

12. Araudi osagarria: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen azken xedapenetako lehenengoan eta xedapen gehigarrietako 14.ena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legeko dirulaguntzak ematea garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Maeztu, 2021eko azaroaren 22a

Alkatea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA